



José Luis Fernández Maure

Europar Proiektuak eta Nazioarteko Kudeaketa
Gestión Internacional y Proyectos Europeos
Tknika

Ikastetxeen nazioartekotzeari buruzko emaitzak

Sobre la internacionalización de centros

2010KO ABENDUAN, TKNIKALAN BIDE HEZIKETARAKO BERRIKUNTZA ZENTROAK NAZIOARTEKOTZEARI BURUZKO LINEAKO INKESTA BAT EGIN ZUEN 38 ZENTROTAN –PUBLIKOAK NAHIZ PRIVATUAK–.

Lanbide Hezietako ikastetxeen nazioartekotze-kontzeptuak esanahi asko izan ditzake; hori dela eta, kontzeptua zehaztu beharra dago, abian jarri nahi dugun planaren ildo orokorrak zein izango diren erabakitzen hasi baino lehen. Immigrazioaren kudeaketa ikastetxeetan, ikasle zein irakasleen mugikortasuna, beste herrialde batzuetako ikastetxe edo enpresekiko harremana... hori dena eta gehiago da nazioartekotzea.

Arrisku bat ere badago: nazioartekotzea ikastetxeak urtean zehar duen mugikortasun gutxi-asko iraunkortzat hartzea soilik. Horrek ikastetxe baten nazioartekotzea bere jarduera guztien batura dela pentsatzera eraman gintzake, eta ez da horrela. Gure ustez, nazioartekotze-plan horrek helburu argi eta neurgarri batzuk izan beharko litzuke (epe laburreko zein luzeko adierazleen bidez neur daitezkeen helburuak), errealitatean oinarrituta egon beharko luke (arreta berezia eskainiz ikastetxe bakoitzak dituen baliabideei, giza eta ekonomia-baliabideei bereziki), ikastetxeko estamentu guztien parte-hartzea bultzatu beharko luke, erantzukizun partekatuan oinarrituta egon beharko luke, eta bere jardueretako batzuk helburu horiek lortzera bideratuta egon beharko lukete.

Ikaskuntza eta hizkuntzaren ezagutza maila handitu egin behar ditugu, beste kultura batzuen ezagutza sustatu eta, sistemaren malgutasunaren aldeko apustu garbia eginez, herrialdeetako eragileen arteko ezagutza-trukea erraztu. Azkenik, ikastetxe bakoitzeko nazioarteko harremanak eguneroko ogi bihurtu behar ditugu, eta ingururik hurbilenarekiko harremanen edota barne-jardueren maila berean jarri.

Gure inkestako galderek bi helburu zituzten: lehenik eta behin, ikastetxeek alor horretan duten egoeraren argazkia ateratzea, eta, bigarrenik, ikastetxeok epe labur, ertain eta luzerako nazioartekotze-planetan parte hartzeko duten interesa zenbaterainokoa den neurtzea.

TKNIKA, EL CENTRO DE INNOVACIÓN PARA LA FORMACIÓN PROFESIONAL, REALIZÓ EN DICIEMBRE DE 2010 UNA ENCUESTA ONLINE A 38 CENTROS –PÚBLICOS Y CONCERTADOS– SOBRE SU SITUACIÓN ACTUAL EN RELACIÓN A LA INTERNACIONALIZACIÓN.

El concepto de internacionalización de los centros de Formación Profesional puede tener una variedad de significados que debemos acotar a la hora de establecer las líneas generales del plan que pretendemos poner en marcha. Como internacionalización se puede entender la gestión de la inmigración en los centros, se puede entender la movilidad del alumnado, del profesorado, se puede entender la relación con otros centros o empresas de otros países y se puede entender de formas muy diversas.

Hay un peligro de que se identifique la internacionalización, únicamente como la movilidad más o menos sostenible que un centro tiene a lo largo del año. Esto nos podría llevar a la confusión de entender que la internacionalización de un centro es la suma de las actividades que realiza. Pretendemos que este plan de internacionalización se marque unos objetivos claros y medibles con indicadores a corto, medio y largo plazo, que esté basado en la realidad prestando especial atención a los recursos que tiene cada centro, recursos humanos y económicos, un plan que contemple la implicación de los diversos estamentos del centro, un plan que debe estar basado en la responsabilidad compartida, y que desarrolle un número de actividades orientadas a la consecución de esos objetivos.

Debemos mejorar el aprendizaje, el nivel de conocimiento de la lengua, promover el conocimiento de otras culturas, y haciendo una clara apuesta por la flexibilidad del sistema facilitar el intercambio de conocimientos entre los diferentes agentes en diferentes países. Debemos en fin, conseguir que las relaciones internacionales de cada centro sean el pan de cada día y al mismo nivel que las actividades internas o con el entorno más cercano.

Las preguntas que se llevaron a cabo en la encuesta online que se realizó pretendían en primer lugar sacar una fotografía de la situación actual de los centros en este campo y en segundo lugar de su interés por tomar parte en este plan de internacionalización a corto, medio y largo plazo:



Ikastetxe bakoitzeko nazioarteko harremanak eguneroko ogi bihurtu behar ditugu.

Ikastetxeen egungo egoera

Informazio- eta marketin-tresnen presentzia oso txikia da, hutsaren parekoa ia: frantsesari dagokionez, ikastetxe bakar batek egiten du ikasketa-eskaintza hizkuntza horretan; ingelesari dagokionez, berriz, lau ikastetxek web-orria eta ikasketa-eskaintza hizkuntza horretan dute, eta hiruk propaganda-orriak eta lineako informazioa.

Adierazgarria da beste herrialde batzuetako ikastetxeekin harremanak dituzten ikastetxeen kopurua: 27 ikastetxek (% 75ek) beste ikastetxe batzuekin harremanak dituztela adierazi dute, eta beste hainbestek ikasleekin harremanak dituztela. 21 ikastetxek beste herrialde batzuekin lankidetzaproiektuetan lan egiten dute, eta 14k harremanak dituzte beste elkarte batzuekin. Azkenik, 17k diote beren irakasleek zenbait herrialdetako ikastetxeetako irakasleekin harremanak dituztela.

Ikasleen mugikortasunari dagokionez, nabarmendu beharra dago ikastetxeek urte asko daramatzatela harremanok sustatzen. Izan ere, ikastetxeen % 43k (13 ikastetxek) bost eta hamar urte bitarte daramate Leonardo programan parte hartzen, eta beste % 33k (hamar ikastetxek) hamar urte baino gehiago. Hogeita hamar ikastetxe ari dira, gaur egun, programa horretan parte hartzen. Erasmus proiektuan parte hartzen dutenak ere ez dira gutxi. 32 ikastetxek diote 2007. urtearen hasieraz geroztik hartzen dutela parte programa horretan. Azpimarratzekoa da bi ikastetxek soilik esan dutela beren ikasleak gizarte-sareen bidez elkar komunikatzen direla.

17 ikastetxek diote erregularitasunez jasotzen dutela beste herrialde batzuetako informazioa edo dokumentazioa: hamarrek zientzia-informazioa jasotzen dute, zortzik teknologia-informazioa, eta beste zortzik dibulgazioa. Aintzat hartzeko moduko kopuruak dira, benetan. Interesgarria izango litzateke jakitea zer gertatzen den argitalpen horiekin eta inolako transferentzia-jarduerarik egiten ote den, horren guztiaren kostua transferentzia-jardueren bidez kitatu beharko bailitzateke.

Azkenik, eleaniztasunaren gaiarekin bukatzeko, esan beharra dago bi ikastetxek bakarrik dituztela frantsesa dakiten langileak Zuzendaritza Taldean eta Administrazio eta Zerbitzu Langileen artean. Ingelesaren kasuan, sei dira bi sektore horietan ingeles hiztunak dituzten ikastetxeak. Alemanaren kasuan, bada ikastetxe bat, Administrazio eta Zerbitzu Langileen artean (lez ordea Zuzendaritza Taldean) hizkuntza hori ondo ezagutzen duen langileren bat duena.

Ikastetxeen interesak Nazioartekotzearen esparruan:

14 ikastetxek (hau da, % 43,8k) epe laburrean web-orriko informazioa nazioartekotzeko asmoa dute. Hamar ikastetxek epe laburrean heziketa-eskaintza eta propaganda-orriak beste hizkuntza batzuetan izateko interesa dute, eta 14k epe laburrean ere beren lineako eskaintza beste hizkuntza batzuetan egin nahi lukete.

Prestakuntzaren esparruan ere oso datu esanguratsuak ditugu: 16 ikastetxek interesa dute beren irakasleen hizkuntza-prestakuntza sustatzeko, eta 14k nazioarteko proiektuen kudeaketarako prestakuntza bultzatzeko.

La situación actual de los centros

La presencia de herramientas de información y marketing es prácticamente testimonial: En francés sólo un centro dispone de la oferta de estudios y en inglés un total de cuatro centros tienen información en la página web y en la oferta de estudios, y tres disponen de folletos de propaganda y de información online en dicho idioma.

Es significativo el número de centros que tienen relaciones con otros centros de otros países, un 75%, 27 centros afirman tener relaciones con otros centros y el mismo número de ellos afirma tener relaciones con alumnos. 21 centros trabajan en proyectos de cooperación con otros países y 14 tienen relaciones con asociaciones. Finalmente 17 afirman tener relaciones entre profesorado de centros de diferentes países.

Con respecto a la movilidad de alumnado de los centros es importante resaltar la antigüedad de las relaciones de los centros ya que un 43% llevan participando en Leonardo entre 5 y 10 años (13 centros) y un 33% más de 10 años (10 centros). Un total de 30 centros participa en este programa. También la participación en proyectos Erasmus. 32 centros reconocen su participación desde el principio en 2007. Es importante resaltar que sólo dos centros admiten que sus alumnos mantienen relaciones a través de las redes sociales.

17 centros afirman que reciben regularmente información o documentación de otros países, 10 de carácter científico, 8 de carácter tecnológico y 8 de carácter divulgativo. Son números significativos. Sería interesante conocer el destino de las publicaciones y si existe alguna actividad de transferencia ya que el coste debería ser amortizado con actividades de transferencia.

Finalmente en el tema del multilingüismo son 2 centros en francés con personal tanto en dirección como en PAS que domina la lengua. Otros 6 centros en inglés también con personal en ambos sectores que domina la lengua y 1 centro en alemán con personal en PAS pero no en dirección que domina la lengua.


Qué les interesa a los centros en la Internacionalización

Un 43,8%, 14 centros estarían interesados a corto plazo en tomar medidas para internacionalizar la información en la página web. 10 centros estarían interesados a medio plazo en disponer de la oferta educativa y de folletos de propaganda y 14 centros también a medio plazo en que la oferta online estuviera en otros idiomas.

En el ámbito de la formación se dan porcentajes de centros muy significativos: 16 centros estaría interesados en promover formación del profesorado en lenguas y 14 estarían interesados en promover formación para la gestión de proyectos internacionales. Otros dos puntos de posible análisis para el plan. Así mismo 12 centros estarían interesados en promover la formación en idiomas del equipo directivo. Todos estos datos son referentes a una formación a medio plazo pero también son significativos los datos a corto plazo: 15 Formación profesorado, 8 gestión de proyectos y 9 de equipos directivos. La elaboración de materiales también interesa a corto y a medio a un grupo de 16 centros.

Zure ikastetxeak zein eragilerekin ditu nazioarteko harremanak?

¿Cuáles son los agentes con los que su centro mantiene relaciones internacionales?



Debemos conseguir que las relaciones internacionales de cada centro sean el pan de cada día.

Horra, beraz, planean kontuan hartu beharreko beste bi puntu. Halaber, 12 ikastetxek zuzendaritza-taldearen hizkuntza-prestakuntza sustatzeko interesa dute. Datu horiek guztiak epe ertainerako prestakuntzari dagozkio, baina epe laburrerako datuak ere adierazgarriak dira oso: 15 ikastetxek irakasleen prestakuntza sustatu nahi dute, zortzik proiektu-kudeaketan prestakuntza jaso, eta bederatzik zuzendaritza-taldearen prestakuntza bultzatu. 16 ikastetxek materialgintzan ere epe labur eta ertainean zerbait egiteko gogoia dute.

35 ikastetxek, bestalde, interesgarri deritzote beste herrialde batzuetako materiala jasotzeari. Horietatik 33k diote material horrek irakasleen esparrura zuzenduta egon beharko lukeela gehienbat, eta 28k ikasleen esparrura. Materialak, gainera, alor guztiak hartu beharko lituzke: teknikoak, dibulgaziozkoak eta pedagogikoak.

Ikasleen arteko lineako harremanak bultzatzeko aukerari dagokionez, berriz, 16 ikastetxe interesatuta daude, beste 17 nahiko edo oso interesatuta.

Proiektugintzak ere interesa piztu du ikastetxeen artean, haietako 28k interesatuta edo oso interesatuta daudela azaldu baitute. Antzekoak dira beste herrialde batzuetako enprekin harremanak izateko interesari buruzko ehunekoak ere.

Plan estrategikoari dagokionez, 19 ikastetxek diote argi eta garbi jasotzen direla bertan nazioartekotze-jarduerak, eta beste 11k zati batean baino ez direla jasotzen.


Plana gauzatzea eragotz dezaketen faktoreen artean hiru nabarmentzen dira: hizkuntza ez jakitea aipatu dute 22 ikastetxek, denbora-falta 24k, eta 17 ikastetxek diote nazioartekotze-plana zer den ez jakitea izan daitekeela eragozpen nagusietako bat. Azken datu hori kontuan hartzeko modukoa da.

La recepción de materiales de otros países despierta un interés general en 35 de los centros de los cuales 33 consideran necesaria esa recepción dirigida al ámbito del profesorado y 28 al alumnado y que cubra todas las expectativas de carácter técnico, divulgativo o pedagógico.

Con respecto a la posibilidad de establecer contacto online de forma periódica entre alumnos 16 centros afirman estar interesados y otros 17 bastante o muy interesados.

Nazioartekotzeari lotutako jarduerak jasotzen ditu zure ikastetxeko plan estrategikoak eta urteko planak?

¿El plan estratégico y el plan anual de su centro recogen acciones relacionadas con la internacionalización?



La realización de proyectos también suscita un interés entre los centros ya que 28 de ellos se colocan en la banda entre interesado y muy interesado. Similares son los porcentajes sobre el interés en contactar con empresas en otros países.

Encuanto al plan estratégico 19 centros afirman que se recoge de forma clara las actividades de internacio-

nalización y otros 11 de forma tangencial.

En cuanto a la definición de los factores que pueden suponer un obstáculo para la realización del plan hay tres significativos: El desconocimiento de la lengua es apuntado por 22 centros, la falta de tiempo por 24 y un dato curioso para el análisis y para establecer una política comunicativa, 17 centros afirman que un obstáculo puede ser el desconocimiento de lo que significa un plan de internacionalización.

Ondorioak

Behin inkestaren emaitzak aztertutakoan eta EAEko Lanbide Heziketako ikastetxeen nazioartekotzea sustatzeko eragozpen izan daitezkeen faktoreak ezagututakoan, TKNIKAK epe ertain eta luzerako plan bat, ikastetxeak alor horretan asetzeko modukoa, prestatzeko proposamena egingo die HETEL, IKASLAN eta AICE sareei. Aipatutako planak aurrerantzean garatu beharreko helburuak (kualitatibo zein kuantitatiboak), adierazleak eta jarduerak diseinatu beharko lituzke, honako alderdi hauek kontuan hartuta betiere:

- Norabide anitzeko mugikortasun-aukera aztertzea, bai ikasleak (edo irakasleak) bidaltzeko bai hartzeko orduan.
- Ikastetxeek gutxienez eduki beharreko komunikazio- eta marketin-tresnak zehaztea.
- Beste herrialde batzuetatik ikasle eta irakasleei bidaltzen dieten eta interesagarria izan daitezkeen dokumentazioa aztertzea eta ikastetxeen eta enpresen arteko komunikazioa erraztea maila bietan.
- Dagoeneko abian diren planekin bateragarri edo indargarri izan daitezkeen prestakuntzaguneak eratzea, irakasle zein zuzendaritza-taldeetako kideentzat.
- Nazioarteko proiektuen kudeaketarako prestakuntza-plana garatzea.

Conclusiones

Una vez analizados los resultados de la encuesta y conociendo los factores que puedan ser un obstáculo para promover la internacionalización de los centros de Formación Profesional en la CAV, TKNIKA propondrá a las redes HETEL, IKASLAN y AICE un plan a medio y a largo plazo que pueda cubrir las expectativas de los centros en este campo. El plan estaría basado en diseñar los objetivos cualitativos y cuantitativos, los indicadores y las acciones a desarrollar en las siguientes facetas:

- Analizar la posibilidad de la movilidad multidireccional, no sólo de envío sino también de acogida.
- Establecer unos mínimos en las herramientas de comunicación y Marketing que tienen los centros
- Analizar la posible documentación de otros países dirigida al profesorado y alumnado que pueda ser considerada de interés y facilitar la comunicación entre centros y empresas a ambos niveles.
- Preparar espacios formativos que puedan ser compatibles y de refuerzo a los planes existentes, bien dirigidos al profesorado, bien a los equipos directivos.
- Plan de formación en gestión de proyectos internacionales.